

Hotzaren hotzez, hotza hautsi arte



TESTUA ETA ARGAZKIA:

Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Hotzak fruituak ontzen ditu. Hasten hasteko, askotariko fruitu motak daude aipatu behar da; denek ez dute, ezta gutxiago ere, jokabide bera eta bakarra. Hortaz, orokorrean aipatuko ditugu beren kontuak.

Daramatzen haziak heldutasunera ekarri dituenen, fruituak berak hartuko du umotzeko bidea. Fruitua ontzeko lanean aldagai ugarik eragiten du. Sasoia da ontzearen arrazoi bat; behin sasoiara etorrita ekingo dio. Denbora da beste bat. Denborak aurrera egin ahala, fruituak ezin dio eutsi berde eta tinko, bigundu, beratu eta usteltzera joko du. Esaerak honela dio: "Denborak eta las-toak ontzen ditu mizpirak". Inguruak ere zeresana badu. Gaitzek eta izurriteek gustuko dituzte fruituak, animaliek bezala. Fruitua janaria pilatzen duen zati bat da, eta goseak ez du barkatzen. Horiek kosk edo zizta egin duten tokian zauria, eta zauritik alferrik galtzea, usteltzea... abiatzen dira.

Eguraldiak ere aldaketak sustatuko ditu fruituan. Batzuk txarrerako: haizetearen mugimenduak adarraren kontra jotzea, kazkabarrak zauriak, eguzkiak erreduurak, lehorteak zikoiztea, eta abar. Era berean fruituaren etorkizunaren onerako laguntza ere badakar eguraldiak: urak, eguzkiak eta beroak, tamai-



nan, fruituak alegorrituko ditu; osatu egingo dira, hazi eta bigundu. Kolore aldaketa dakar, jeneralean, bide horrek. Heldutasunaren adierazle. Fruitua erakargarri egingo da animalientzat; gozatze bidea da zoritzea. Gozotik jan eta haziak barreiatuko dituzte.

Hotzak ere laguntzen du. Fruitu berantiarrek ematen dituzten fruitu arborek udazkeneko hotza ezagutzen dute. Badakite igaliei gainean eutsita lurrean baino errazago harrapatuko dituela ho-

tzak. Hotz hori gogorra bada, fruitua izoztu egingo da. Izozteak barruan duen ura galtzea dakar, eta gozotasuna ematen dioten osagaiak are eta kontzentratuago geratuko dira: askoz gozoago, alegia. Ez du luze iraungo, baina jateko...

Hotzak lirindutako fruituak "izotzezko edariak" egiteko erabiltzen dira. Arrazonamendua hauxe da: gozoago, alkohol gehiago, hartxidura etenarazi eta edari gozo-alkoholiko sendoa lortu. Izotzezko sagardoak, ardoak... ■

**Goizper Group**

Elkarlanean garatzen

Goizper, 50 urte baino gehiago berrikuntzak egiten eta ingurumenarekin konprometituta.



Industrialia



Ihiztadura



Bioteknologia

